

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 242. alea - 2019ko uztaila



**Iratxe Hdez.
Simalen artelaneekin
jantzi dute klaustroa**



G

JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba



ASKETA, S.L.


ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



K21
KALITATEA
Enpresa Registrada Nº 2 / 05 / 049
NIVEL 2



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko
erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



ekoðenda,
diestetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: telarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoi@hotmail.com



**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA



Calbeton

JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Seven Clovers
Irish pub

943 191 295



**AUKERA
INMOBILIARIA**

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95



AURKIBIDEA

04

GUTUNAK

“Eskerrik asko, Joxe Luis!”, “Ez gara markoan kabitzen, ezta nahi ere!”, “Zenbat urte gehiago?”



10

ANIMADEBA

Victor Orozcoren *32-Rbit* film laburra nagusitu da Animadeba lehiaketako Sail Ofizialean



12

ALBISTEAK

Erakusketa artistikoa elizako klaustroan, Iturri Ondoko ekimenak, elkartasun kontzertua...



14

KIROLAK

127 lagunek parte hartu dute Itxasmilan; Iruleak Emakume Pilotariak, lanerako gogoz eta ilusioz



17

LABURRAK

Zuhatza elkarteko mintzalagunek amaitu dute ikasturtea, Kolorez Blai udalekuak...



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefona: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Herruntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza)



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzio taldea

Publizitatea: Joseba Escudero eta Terese Larrañaga

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria

Inprimategia: Euskalinpri

Lege gordailua: SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: *berriketan@zuhatza.com* edo *koordinatzailea@zuhatza.com*.

Eskerrik asko, Joxe Luis!



Ikasturte bukaerarekin batera, mintzalagun egitasmoan parte hartzeari agur esaten diozula jakinarazi diguzu

eta gure aldetik eskerrak eman beharrean gaudela iruditu zaigu. Hori da, beraz, eskutitz honen helburua, Joxe Luis.

Itsasoaren beste aldetik heldu zinen gurera, duela urte mordoxka bat. Eta aspaldi egin zenuen bat egitasmoarekin; ikasle gisa hastetik egitasmoaren ardatz izateraino, hasiberri izatetik beste askoren irakasle bihurtzeraino.

Asko izan dira elkarrekin pasa ditugun orduak: mintzasaioak, bilerak, partekatu ditugun konfidentziak, ahazturiko "k"-k gogorarazi ditugun uneak, edandako garagardo edo kafeak, zure ahotik ateratako pasarteak, egindako barre-algarak... elkarrekin

konpartitutako une ederrak, nolabait esatearren.

Urte hauetan zure laguntza, laguntasuna, ilusioa eta gure hizkuntz zaharrekiko maitasuna helarazi dizkiguzu. Zurekin ikusi eta ikasi dugu euskara ikastea eta erabiltzea posible dela, baita samurra eta dibertigarria ere.

Horregatik guztiagatik, eskerrak eman nahi dizkizugu. Eskerrik asko egitasmo honetan parte hartzeagatik, eskerrik asko Zuhatza elkartearen beti bidelagun izateagatik eta eskerrik asko eman diguzun guztiarengatik, Joxe Luis.

*Zuhatza Euskara Elkarteak
Mintzalagunak*

"Ez gara markoan kabitzen, ezta nahi ere!"

1969ko ekainaren 28ko gaua. New Yorkeko Stonewall deituriko gay mugimenduko taberna. Poliziaren sarekada berri baten aurrean, bertan biltzen zen bazterreko jendeak erreprosiari aurre egin, eta gau hartan bazterrak bere tokia aldarrikatu zuen. Urtebete beranduago, 1970eko ekainaren 28an, askatasun sexualaren aldeko lehen mundu manifestazioak hasi ziren.

Urtero bezala, aurten ere Stonewalleko matxinadaren 50. urteurrena ospatuz, Debako Talde Feministak deituriko elkarretaratzean 30 bat pertsona bildu ginen, "Izan, bizi, hautatu, gozatu, libre" lelopean. Emakumeak*, transak*, butch-ak, matxuak, bollerak, kaskarinak, arrazializatutako gorputzak garelako.

"Aspaldi hasi ginen salatzen markotik ateratzeak, araua apurtzeak dakarren zigorra. Markoa lehertzen ari gara, plazerrez behin eta berriro apurtzen. Desobedientzia kolektiboa

zainetara eramaten gabilta. Ez gara markoan kabitzen, ezta nahi ere! Markoetatik gaindi, plazera gara!"

Debako Talde Feminista



Zenbat urte gehiago?



Horrela esnatu zen uztailaren 5ean Deba eta Mutriku arteko zubia. Urtebete pasa da erori eta bertatik igartzeko aukera itxi zenetik. Urazamendik-eko bizilagunok ederki asko gogoratzen dugu goiz hura, orduz geroztik gutako batzuek ezin izan dugu ibaia pasatu bertan jarri diguten pasabidetik.

Konponketa lanen lehen fasea zubia bera zutik mantentzea izan da, harriak eutsiz nolabait. Fase hori duela hiru hilabete bukatu zen. Horren ondoren, oinezkoentzako igarobide bat jarri dute zubi zaharraren gainean. Baina igarobidera iristeko nahitaezkoa da alde banatan 30 eskailera igotzea eta, beraz, nagusiek, ezinduek edota haurren aulkiak dituzten bizilagunek ezin izaten dute igarobidea erabili. Egin kontu gure oinarritzko zerbitzuak zubiaz bestaldera daudela (eskola, medikua, erosketak), gure etxeetatik 400 metro ingurura, Mutrikuko herri-gunea urruti geratzen baita auzotik.

Maiatzean ekin behar zitzaion zubia birgaitzeko lanen bigarren faseari, baina dirudienez ez da abendura arte hasiko. 2020ra bitartean ez diete, hortaz, lanei ekingo. Hori jakinda, begi-bistan dago auzoa bakartua geratuko dela urte batzuetan, eta horregatik

larritasun egoera honi dagokion neurriko konponbidea emateko eskatzen dugu.

Zubia erori zenetik, bizilagunok Deba eta Mutrikuko alkateekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa sailerako arduradunekin elkartu gara; arartekoari berari ere laguntza eskatu diogu. Horrez gain, manifestazioak ere egin ditugu herrian eta hainbat aldiz jo dugu hedabideetara. Hori horrela izanik ere, 300 lagunoi ez zaigu konponbiderik eskaini eta gutako batzuen egoera zaugarria da benetan. Administrazioek bata besteari egotzi diote arazoaren ardura urte luze honetan zehar: Udalek diote ez dutela baliabiderik eta Aldundiak, berriz, ez ikusiarena egiteaz gain, Udalei egozten die bizilagunekiko ardura. Bizilagunon ezinegon eta urduritasuna ez dira nolanhikoak, baztertuak sentitzen baikara. Hala ere, tokiko administrazioetan izan diren hauteskundeetatik eratorri diren Udal zein Aldundiko talde berriei bilerak eskatzen jarraituko dugu. Helburua: urtebete baino lehen irisgarritasuna ahalbidetuko digun konponbidea lortzea.

Urazamendik-eko auzotarrak



JON AMUTXASTEGI

Iritzidependientek

Iritzidependientek gara, guztiok. Jaio bezain laster erakusten digute besteen iritzia merezi dugula. Bazkalorduan purea ahoan sartu eta muturra guztiz zikindu ostean, "oso ondo" esaten digute: lehenengo iritzia. Norbaitek opari bat egin ostean, gurasoen "ea zer esaten da" hitz magikoekin buelta erdi eman eta eskerrak eman ostean: "oso ondo". Ondoren, *oso ondo* hori *oso polita* bihurtzen da lehenengo marrazkiak egiten dituzunean. Geroago ze guap@ ilea moztzen duzunean; eskolan, aldiz, bat eta hamar bitartean puntuatzen zaituzte, eta sare sozialetan bihotzak jasotzen dituzu. Bat-batean, gure bizitzan egiten dugun ia guztia besteek ikusi eta iruzkindu dutenaren arabera egiten dugu.

Baina hau ez da fenomeno berria, *Aupa Etxebeste* film arrakastatsua aztertu besterik ez dugu. Badakit fikzioa dela, baina fikzioak identifikazioan du gakoa, eta ziur nago ez naizela familia horrekin identifikatuta sentitu den bakarra izan. Etxebestetarrak besteen iritzien beldur ziren, eta iritzi horiei aurre egitea oso zaila da.

Zer jantzi pentsatzean, besteen iritzian pentsatzen dugu, zer erosi pentsatzean, nola jokatu erabakitzean, nor zaren ulertu nahi duzunean... Iritziei kasu egiten ez badiezu ere, beti egongo dira hor, ezinezkoa baita hauek ekiditea, iritzietan oinarritzen den gizarte batean bizi baikara. Testu hau ere iruzkin bat da, beste iritzi bat. Espiral antzeko batean bizi gara eta, bertatik irteten saiatu beharrean, bertan bizitzen ikasi behar dugu.

P.D.: *Aupa Etxebesteren* bigarren zatia, *Agur Etxebeste*, aurten estreinatuko da!



HERRIKOAK BERRIKETAN

GURE KAI EUSKAL DANTZARI TALDEA

Euskal folkloreaken puzzlean bada, osaketan ezinbestekoa izan arren, behar duen garrantzirik ematen ez diogun pieza bat: euskal dantza.

Gure herrian, urratsez urrats historiaren konpasera hankak airean gabiltza Gure Kai Euskal Dantzari Taldean.

Garaiek eskatu bezala, ohituren bila-kaera bideratzen eta beharrezko sentitzen ditugun aldaketak egiten dihardugu lanean ikasturte osoan zehar, taldeak aukeratzen dituen dantzak ikasiz eta horretarako beharrezko teknikak hobetuz. Irakasle figurarik gabe funtzionatzen dugu, dakienak ez dakienari irakatsiz. Hori da taldearen berezitasunik preziatuena, transmisioa izatea belaualdiz belaualdi darabilgun lekukoa.

Herriarekin dugun konpromisoari begira, udaberri-uda garaian, egindako lana erakusteko tartea izaten dugu: Dantzari Txiki Eguna, Debarren Eguna,

San Juan bezpera, San Pedro bezpera, Folklore Jaialdia, San Roke festetako lau egun eta Euskal Jaia egun markatuak dira gure egutegian.

“Transmisioaren katea hautsi ez dadin, norbere apurretik tira egin beharra dago. Animatu zaitetzte taldearen eta historiaren parte izatera!”

Une honetan, Folklore Jaialdiaren prestaketan murgilduta gaude. Bi urte behin plazaratu arren, bi urte oso ematen ditugu lanean horretarako. Zuzeneko dantzaz gain, lan handia eskaintzen diogu oholtzaren atzetik, horregatik da hitzordurik berezienta-

koa dantzariontzat. Nazioarteko Folklore Jaialdia uztailearen 26an (ostirala) izango da, 22:30ean, zumardiko karpan.

Ondoren, herriko festak datozkigu. Beraz, gonbidapena luzatu nahi diogu pertsona orori abuztuaren 16an eta 17an goizez egingo ditugun dantzetan parte hartzeko. Abuztuaren 8an eta 12an, 19:30ean, dantzak ikasteko entseguak eskainiko ditugu. Horrez gain, uztailearen 29an, 19:00etan, Larrain dantza ikasteko entsegua prestatu dugu nahi duenarentzat. Beraz, ez dago aitzakiarik!

Eta nola ez... herria animatu nahi dugu taldearen eta historiaren parte izatera. Izan ere, transmisioaren katea hautsi ez dadin, norbere apurretik tira egin beharra dago. Utzi lotsak alde batera eta batu dantzazale zein dantzari, eskain diezaigun herritik herriari!

Dantza egiten duen herria ez da inoiz hilko!



Hamar batzorde informatzaile egongo dira agintaldi honetan

EH Bilduk eta EAJk osatuko dute Udaleko Tokiko Gobernu Batzordea; Debarren Ahotsak entzule bezala parte hartuko du



Ander Salegi

EH Bilduko lau kidek (Gilen Garcia, Itziar Irizar, Aritz Larrañaga eta Antxoka Elorza) eta EAJko kide batek (Iñigo Cambroner) osatuko dute agintaldi honetako Debako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordea. Udal gobernuak jakinarazi duenez, Debarren Ahotsak ez du onartu bertan parte hartzeko egin dioten proposamena; batzordean izango dira DAKo bi kide (Pedro Bengoetxea eta Ane Egidazu), baina entzule bezala parte hartuko dute.

Ekainaren 15ean karguak hartu eta Udalbatza berria osatu ondoren, uztailaren 11n egin zuten udaletxean 2019-2023 agintaldiko Debako Udalaren antolaketa zehazteko osoko bilkura, ezohikoa (hasiera batean aurreikusitakoa baino astebete beranduago). Bertan, besteak beste, datozen lau urteotarako batzorde informatzaileak, hautetsien ardurak eta ordainsariak zehaztu zituzten.

Hamar batzorde informatzaile iraunkor izango dira agintaldi berrian -aho batez onartu zen erabakia-; eta

batzorde horiek EH Bilduko zinegotziek gidatuko dituzte (azpiko koadroan ikus dezakezue batzordeen eta dagozkien batzordeburuen zerrenda).

Gilen Garcia alkatea lanaldi osoan arituko da eta 52.880 euro jasoko ditu urtean, Pedro Bengoetxea alkate ohia- ren soldata mantenduz; zinegotziek aho batez onartu zuten erabakia. Alkateordeak, berriz, Itziar Irizar eta Aritz Larrañaga izango dira.

Udal gobernuak azaldu du zinegotzi bat lanaldi osorako liberatzeko proposamena egin zuela osoko bilkuran, baina proposamen hori ez zen onartu. EH Bilduko sei zinegotziek aldeko botoa eman bazuten ere, zazpi izan ziren aurkako botoak (DAko lau eta EAJko hiru).

Bestelako erabaki ekonomikoei dagokienean, talde politikoei hiru hilabeteko jasoko dituzten esleipen ekonomikoak ere zehaztu zituzten (orain artekoak mantenduko dituzte): 283,16 euro zinegotzi bakoitzeko, 565,27 euro batzordeburu arituko diren zinegotzientzako, 863,20 euro talde politiko bakoitzeko, eta 285,62 euro jasoko ditu talde bakoitzak taldekoo den zinegotzi bakoitzeko.

Bestetik, udalbatzaren ohiko bilkurak hilabetean behin egitea adostu zuten, hile bakoitzeko azken ostegunean (19:00etan). Jai eguna izango balitz, bi egun lehenago bilduko lirarteke.

Batzorde informatzaileak eta batzordeburuak

- 1- Herritarren parte-hartzea (Gilen Garcia)
- 2- Berdintasuna eta politika feministak (Itziar Irizar)
- 3- Barne erregimena (Aritz Larrañaga)
- 4- Ogasuna, Ondarea eta Kontuetarako Batzorde Berezia (Itziar Irizar)
- 5- Hirigintza eta etxebizitza (Gilen Garcia)
- 6- Ekonomiaren sustapena eta Landa eremuaren garapena -Turismoa, ostalaritza, merkataritza eta Geoparkea barne- (Nerea Arrizabalaga)
- 7- Ongizate politikak (Aritz Larrañaga)
- 8- Obrak, Zerbitzuak eta Ingurumena -Hondakinak eta Tokiko Agenda 21 barne- (Antxoka Elorza)
- 9- Hezkuntza, Gazteria eta Kirola (Antxon Etxeberria)
- 10- Euskara eta Kultura -jaiak barne- (Aritz Larrañaga)



BINGEN ESTURO

Mugiment 360°

Gizakiak berezkoa du mugimendua, mugitzeko eginga dago, eta ez da kasualitate mugitzeak zein motibazioak erro berean izatea jatorria, latinetik *movere-motus*-etik baitatzen biak. Kasualitate ala kausalitate, motibazioak mugitzen gaitu eta mugitzeak sortzen digu motibazioa. Hor egingen dute bat, hain zuzen, adimenak eta gorputzak. Gorputzari eragindako ariketek adimenean eragin zuzena dute eta. Jarduera fisikoa, beraz, ezinbesteko tresna da gure ongizate betetarako, baina ez edonolako jarduera.

Denok dakigu geldirik egoteak kalte baino ez digula egiten, baina behin mugitzen hasita, mugimendua berak ere kalte egin diezaguke. Hori da mugimendua ikasi eta lantzen gabiltzanon kezketako bat. Argi daukagu gimnasioko ohiko ariketek gorputza landu, lantzen dutela, baina ispiluan distira egin arren, askok "bizkarrean" min eragiten dute. Ongizate urrutzen direla esan nahi dut, gaur hankak eta bihar besoak lantzea etzirako desorekak sortzeko bidea baita. Gainera, mekanikoki mugimendu zurrunka egitea saihestu behar genuke.

Horregatik, praktika jasangarri baten bila ari naiz dantza, arte martzial, yoga eta pilates bezalako iturrietatik edanda. Ikuspegi holistikoago batekin bat egiten duen *Mugiment 360 gradu* izeneko praktika bat proposatu nahi nuke. Gorputz barneko zein inguruko espazioa aintzat hartuta eta bizkarrezurra ardatz; mugimendu organiko, esferiko eta espiralen bitartez tonua, elastikotasuna eta indar funtzionala lantzea bilatzen duen metodoa.

Ura bere inguruetara moldatzen den moduan, mugi gaitzen jariatuz.

Azaleko minbizia azkar antzemateko bidea orinak aztertzea da

Melanoma eta AECC Minbiziaren Aurkako Taldearen informazioa

Aurrez ikus daitekeen tumorea da azaleko minbizia; eta pronostiko erraza du garaiz antzeman eta tratatuz gero. Horregatik, garrantzi handia du azala ondo zaintzeak, susmagarri daitezkeen orin eta orbanak bere garaian antzeman ahal izateko. Azalaren **auto-esplorazioa** metodo ona eta erraza da, agerian dagoen organoa da eta. Edozein orin, orban berri badugu edo, formaz, neurritz, kolorez aldatzen hasten denean, susmarazi egin behar digu eta medikuarenganako bidean jarri, zuzen diagnostikatu eta tratamendu egokia eman diezagun.

Azaleko minbiziaren eragile nagusia eguzki-erredurak dira; eta, gogoan izan behar dugu **azalak memoria duela**.

Eguzkiak eragindako erredurak zauri erasokorrak dira; beraz, behin eta berriz, 20-30 urtez, zauritzen joanez gero, erredura horiek minbizi bilaka daitezke. Gainera, erredurarik ez izan arren, eguzki-izpi ultramareek ere eragin dezakete azaleko minbizia. Horregatik, uda etorri eta eguzkia hartzen hastean, haurtzarotik hasi behar dugu azala zaintzen. Hara gomendatzen dena:

a) Kolore iluneko **arropa luzeak** erabili; txapela, itzalkina eta eguzkitarako bereziak diren betaurrekoak.






b) Hoberena **eguzki-babesgarria urte guztian zehar** ematea da, eta ez hondartzan eta igerilekuan soilik. Eguzki-babesgarria, eman eta ordu erdi ingurura has-

ten da eragina izaten eta 2 edo 3 orduz irauten du. Beltzaran egoteak ez gaitu eguzki-erradiazioetik babesten.

d) **Ordurik arriskutsuenak** 12:00etatik 16:00ak bitartekoak dira. Ordu horietan itzalean egon behar da ahalik eta denbora gehien.

Minbizi-zauriak era askotakoak izan daitezke itxuraz: **kartzinomen** kasuan nabarmen agertzen dira orbanak, gehienetan gorritzak, ezkatatu eta odoldu daitezkeenak; noduluak handidura edo ton-tor borobil antzekoak dira; baditugu, bestalde, ixten ez diren zauriak ere.

Melanometan, zauriek erakusten dituzten ezaugarriak ondoko hauek izaten dira gehienetan:

ASIMETRIA	ERTZAK	KOLOREA	DIAMETROA	BILAKAERA
Forma obalatu ez duen orina	Puntadun irregularrak	Askotarikoa. Ez homogeneoa. Marroi argitik beltzera doan kolorea ageri da	6 mm baino gehiago	Itxura aldaketa neurri, kolore edo lodieran
				

Goiko taulako ezaugarri horietakoren bat ageri duen edozein zauri izanez gero, jo medikuarengana. Orin asko samar, 100 edo gehiago, ditugunean ere aldizka aztertu beharrekoak dira.

Jose Luis Albizu eta Lukax Dorronsoro



Uzuri
optika audio
www.uzurioptika.com

**ZURE ENTZUMENA
ZAINTZEN**



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

RPS: 183/12



Gaztelekuan uda topera!

Iritsi da uda eta Gaztelekuan topera gabiltza garai hone-
tarako antolatutako ekintza bereziekin! Aurtengo lehenengo
ekimena eskolako oporrak hastearekin batera egin genuen:
urteroko boleibol txapelketa izan genuen hondartzan. Fin
ibili ziren 16 urteko gazteak antolaketa lanetan!

Ondoren, Donosti Cup nazioarteko futbol txapelketarako
entrenatzen hasi ginen, 14 urteko neska-mutilek osatutako bi
talderekin. Hemen ere, prestaketa lanetan 16 urtekoek lagun-
du ziguten. Lan bikaina, gazteak! Hilaren 8tik 13ra bitartean
jokatu zen txapelketa.

Itziarko gazteen taldearekin Elorrixara oinez joan eta ber-
tan parrillada egiteaz gain, hamaika abentura izan genituen!
Eta 13 urteko gazteekin egun-pasa joan ginen Gamarrako ige-
rilekuetara. Eguraldi ona, leku bikaina eta konpainia ezin
hobean ibili ginen!

Uztaila bukatu bitartean bestelako makina bat ekimen
burutuko ditugu. Animatu eta zatoz gurekin uda topera
pasatzera!

Debako Gaztelekuko Hezitzaileak



iritzia

Poliedroak

Hiru dimentsio, bolumen finitua eta aurpe-
gi lauak dituen gorputza. Grekeratik eratorri-
tako hitza da. *Poli*: asko, *edro*: aurpegi.

Geu ere hiru dimentsioko gorputzen jabe,
bolumen finito baten barne eta aurpegi asko
dituen gorputzak gara. Edo ez?

Lehen aldiz hanka itsasoan sartu genuene-
ko hura, lehen aldiz marrazki batean familia
irudikatu genueneko hura, lehen aldiz talde
baten parte izan gineneko hura, lehen aldiz
zalantza sentitu genueneko hura, lehen aldiz
lan-elkarrizketa bat izan genueneko hura,
lehen aldiz lehen aldi bat izan genueneko hura,
lehen aldiz geure buruarekiko zintzo izan gine-
neko hura...

Azken aldiz umetako inozentzia sentitu

genueneko hura, azken aldiz bikiniaren goikoa
jantzi genueneko hura, azken aldiz zigarro bati
zupa egin genioneko hura, azken aldiz geure
buruari zin egin genioneko hura, azken aldiz
norbaiti agur esan genioneko hura, azken aldiz
edonorekiko zintzo izan gineneko hura, azken
aldiz azkena esan genueneko hura...

Lehen eta azken aldi diren aurpegi lauez
osaturiko gorputzak gara. Aurretik azken aldi
asko eta oraindik eta lehen aldi gehiago ditu-
gun gorputzak gara. Geure buruari leial ez iza-
tean sortzen den beste hori gara. Zaharra atze-
an utzi eta berriari lekua egitean sortzen den
beste hori gara. Atzoko eta gaurko aurpegien
batuketak osatutako poliedro hori gara.

Gora poliedroak!!!



**GOIZANE
AIZPURUA**

Victor Orozcoren “32-Rbit” film laburra nagusitu da Animadeba lehiaketako Sail Ofizialean

Publikoak “A Bus” film labor txinatarra saritu du, eta Galiziara joan da gidoirik onenaren saria, “Soy Una Tumba” ekoizpenak eramana



Lehiaketa formatuan etorri da aurtren Animadeba, estreinakoz. Hamarkada bateko ibilbidearen ostean, erakustaldi bezala ezagutzen genuena nazioarteko zinema jaialdi bihurtu da. Ez zirudien erronka erraza, baina antolatzaileak pozarren daude lortutako emaitzarekin.

Esanguratsua da datua: aurtengo deialdian 1.300 lan baino gehiago jaso dituzte nazioartetik. Kulturarekiko interesa duten herriko hemezortzi lagunekin talde edo batzorde bat osatu dute, aukeraketa egiteko, eta hamar film lehiatu dira azkenean Sail Ofizialean. Hiru sari

banatu ditu Alfred Sesak, Emilio de la Rosak eta Joana Tostek osatutako epaimahaiak: film labor onenaren saria, gidoirik onenarena eta publikoarena.

Bada, Victor Orozco Ramirezen *32-Rbit* (Alemania, 2018) lanari eman diote animaziozko film labor onenaren saria; “absurdoa salatzeke” eta “datuz asetako testuinguru batean gogoetara bultzatzeke” zinemagileak darabilen “diskurtso lasaia” nabarmendu dute. Egungo gizartearen eta mundu birtualaren arteko harremanaz hausnartzera bideratu nahi du publikoa Orozcoren filmak -7’45”ko iraupena du-.

Gidoirik onenaren saria Khris Cembek zuzendutako *Soy una tumba* lanari eman diote. Galizian tabakoaren deskargen munduan girotuta dago lana, haur baten begirada oinarri hartuta. “Maleziagabea, hunkigarria eta gordina den modu batean lantzen du istorioa eta, horrela, helduen errealitate klandestino baten isiluneak, beldurrak eta konplizitateak irudikatzen ditu”, azaldu dute epaimahaiakideek.

Publikoaren saria *A bus* lanak lortu du Sail Ofizialean; Wenyu Li zinemagile txinatarrek autobus bidaia baten inguruko biñeta komikoa aurkezten du bere filmean, horretarako tradiziozko animazioaz baliatuta.

Sail Ofizialean bezalaxe, Zuzendari Berriak EHU sailean ere hamar film lehia-

tu dira. Shadi Adib-en *Fuse* lan alemaniarak lortu du sari nagusia (300 eurokoa).

Aipamen bereziak

Aipatutako sariez gain, beste hainbat filmek epaimahaiaren aipamen berezia lortu dute jaialdian. *Le Mans 1955* (Quentin Bailieux) frantziarra da horietako bat, Sail Ofizialekoa; epaileen iritziz, “ezbehar batetik sortzen den gatazka morala agerrarazteko proposamen indartsua eta dotorea” dakar bere baitan.

Beste bi aipamen bereziak *It’s wet* (Alexis Godard/Nan Huang) eta *Las del diente* (Ana Perez) lanentzako izan dira.

Ekainaren 19tik 23ra bitartean, animaziozko lanak ikusteko aukera ez ezik, bestelako ekitaldi ugari parte hartzeke ere eman du Animadebak: erakusketak, hitzaldiak, tailerrak, kontzertuak...

Jaialdia amaitu berritan, antolatzaileek balorazio positiboa egin dute. Batetik, uste dute Animadebari nazioarteko proiektzioa eman izanak aldaketa handia ekarri duela, eta publiko gehiago erakarri. Bestetik, pozarren daude egitasmoa abendutik ekainera aldatzeko hartutako erabakiarekin ere, “Debak dituen erakar-garritasunez aprobetxatzeko” aukera izan baitute bertaratutakoek. “Herriko eta kanpoko jende ugari ikusi dugu ekitaldi guztietan, zine proiektzioetan, musika emanaldietan eta bestelako jarduerak paraleloetan”.

Palmaresa:

*Sail Ofiziala:

Film labor onenaren saria:

32-Rbit (Victor Orozco, Alemania)

Gidoirik onenaren saria:

Soy una tumba (Khris Cembe, Espainia)

Publikoaren saria:

A bus (Wenyu Li, Txina)

Aipamen berezia:

Le Mans 1955 (Quentin Bailieux, Frantzia)

*Zuzendari Berriak EHU saila:

Sari nagusia:

Fuse (Shadi Adib, Alemania)

Aipamen bereziak:

It’s wet (Alexis Godard/Nan Huang, Frantzia)

Las del diente (Ana Perez Lopez, AEB)

“

Nire amets handi bat egi bihurtu da, Animadeba nazioarteko zinemaldi bihurtu zaigu. Jauzi handia eman du jaialdiak, eta sail ezberdinez osatutako egitarau aberatsa izan dugu ekainean. Nazioarteko film laburren lehiaketa, film luze arrakastatsuen proiektzioak –zuzendari eta ekoizleak bertan zirela–, maisu eskolak, tailerrak, musika emanaldiak eta beste zenbait jarduera paralelo izan dira. Nazioarteko zein bertako zuzendariak Debaz eta bertako jendeaz gozatzeko aukera izan dute, eta euren esker ona helarazi digute.

Animadeba Udaletik atera eta elkar-tea sortu denetik, lantaldea zeharo han-

ditu da: gure arteko sintonia onak eta bakoitzaren lan egiteko moduak jaialdia aurrera eramateko balio izan dugu. Prozesuan asko ikasi dugu eta hobetu beharreko alderdiak ere lantzen joango gara.

Datorren edizioetarako, adibidez, komunikazio plan hobea egitea beharrezkoa iruditzen zaigu, Debako jende gehiagorengana heltzeko eta kanpokoak erakartzeko.

Boluntarioen lana eskertu nahiko genuke: Debako Kultur Elkarteko Zine Forum-eko lagunak, gure betiko lagunak eta zuen borondatez laguntza eskaini diguzuen herritarrak.

Txalogarria izan da zuen lana! Benetan, zuek gabe ezingo genuke dimentsio hauetako jaialdi bat aurrera eraman! Emozioz betetzen nau zuek ere gure proiektu honetan sinesten duzuela ikusteak!

Tabernarien eta denden bultzada ere eskertu nahi dugu; egitarauaren parte izan zarete eta horrela jarraitzea nahiko genuke, datorren urtera begira kate hau sendotuz.

Esker ona Debako herriari Animadebari aukera hau emateagatik. Zinemaldia errotzen ari da herrian eta datorren ekainean ikusiko dugu elkar, Animadebaren XIII. edizioan!!

”

Argazkien egilea: Nere Oria



Iratxe Hdez. Simalen "Magalean" erakusketa ikusgai dago elizako klaustroan

"Magalean" izenburua du Debako Santa Maria elizako klaustroan ikusgai dagoen erakusketak (uztailen eta abuztuaren izango da zabalik). Bertan, bisitariak Iratxe Hdez. Simal artistaren lanak aurkituko ditu, diziplina, estilo eta tamaina ezberdineko artelanak, hain zuzen ere. "Espazioan eta ekintzan oinarritzen den praktika artistikoa da nirea, performatibitateko joera duena. Horregatik, erakusketa hau ideatzerakoan, kalostrearen antolakuntza espazialek abiatu naiz, berezkoa duen giroa goratzeko asmoz", azaldu zuen Hdez. Simalek uztailaren 6ko inaurgurazioan.

Bilbotarra da sortzez, baina Deba umetatik ezagutzeaz gain, herriarekin lotura estua du artistak. Ezaguna eta gustukoa zuen lehendik ere, aitortu duenez, elizako klaustroa; "bertan sartzean giro magiko batean barneratzen naizela iruditu izan zait beti". Erakusketak zentroan aurkitzen du ardatza, artelan nagusia kokatuta dagoen gunean: bertan, gure kostaldeko berrogeita hamar bat uharrir kokatu dira, zirkunferentzia bat osatuz. Baratzazar jatorrizko eremutik aldi baterako hartuta (beharrezko



baimenak lortu ondoren), instalazio iragankor hori zabaltzea eta hainbat astez Deban ipintzea lortu du Hdez. Simalek, berriz bertara itzuli aurretik.

Harri horiek herriarekin lotura estua daukan lagun talde batek garraiatu ditu, auzolanean, artistak prozesuari berari ere ematen baitio garrantzia. "25-30 kiloko harriak fisikoki garraiatzea bera ahalegin handiko ekintza artistiko bat da, lotura bikoitza adierazten duena: batetik, gaur egun naturarekin dugun hartumana berdefinitzeko premia bistaratzen du; bestetik, gure arbasoekin konektatzen gaitu, haiek ere, harriak espazioan kokatuz, hainbat monumentu laga baitzizkiguten".

Erdigune horren inguruan, arkupean galeria batek inguratzen du patioa. Pasabide horren barruko hormetan marrazkiak ikus daitezke, irudien ikerkuntza prozesu baten emaitza direnak; "marrazkiok, hain zuzen, harriek forma ematen dien itsasorearen mugimendu etengabe eta nahigabekoa gogorarazten dute".

Marrazkien artean pasiatzen jarraituz gero, klaustroaren lau ertzetako batera helduko da bisitaria, eta formatu handiko irudiak aurkituko ditu bertan. Emakumezko baten eskuak (artistaren izebarenak, hain justu) ageri dira irudietan, "eta esku horietan denboraren joana irakur dezakegu, bereziki, harriarekin kontrastean -adierazi du bilbotarrak-. Ez dago esku neutrorik, beti hitz egiten digute. Haien zurrumurrua entzuterako gonbidatzen dut bisitaria".

Ostiral gauak, Iturri Ondoan

Bertso saio literario batekin abiatu da aurten Iturri Ondoko egitaraua. Ekainaren 28an, hain justu, Danele Sarriugarte idazleak kantuan jarri zituen plaza zaharrean hiru bertsolari: Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi eta Ane Labaka. Sarriugartek pasarte literarioak irakurri ondoren, hari loturiko gaiak proposatu zizkien bertsolariei. Ikus-entzule ugari hurbildu ziren emanaldira, oholtzan elkartutako puntako bertsolari eta gai-jartzailen emanaldiaz gozatzeko, eta gau giro ederra egon zen plazan.

Astebete beranduago, hilaren 5ean, "Jokoz Kanpo" antzezlanarekin ekarri zuen Borobil Teatroak konpainiak iturri ondora. Mikel Pagadizabal, Nagore Aranburu eta Anartz Zuazuk idatzitako lana da, Joseba Apaolaza, Asier Hormaza eta Asier Sota aktorek taularatua. Barre-argara ugari eragin zituen antzezlanak.

"Begiradak", "Manez eta kobreak" eta "Negua" ikuskizunek birbiduko dute egitaraua (uztailaren 24an amaituko da).





Debako ordezkaritza Eibarko I. Txistu Egunean



Eibarko I. Txistu Eguna ospatu zen joan den ekainaren 29an, eta bertan izan ginen Kalez Kale Debako Txistulari Taldeko kideak ere.

Arratsaldeko 17:30ean elkartu ginen Zornotza, Elgoibar, Eibar eta Ondarroako txistulariekin Untzaga plazan. Bertan, taldeko argazkiak atera ondoren, herri bakoitzeko taldeek Eibarko auzo batean jotzeko ardura hartu zuten. Deba eta Ondarroakoek elkarrekin jo genuen eta Ipurua auzora eraman genuen txistuen doinua. Gurekin antolakuntzako pertso-

na bat etorri zen eta berak lagundu zigun (nondik joan, non jo, zerbait hartu...). Egia esan, jende asko irten zen leihora eta baten batzuek txalo ere egin ziguten leihotik, seguruenik oso gutxitan joango dira txistulariak hara eta...

19:30ean guztiok berriro elkartu ginen Untzagan eta handik aurrera elkarrekin jo genuen, Eibarko musika eskolako tronpetista batzuek lagunduta. Erdiguneko kaleak alaitu genituen eta jendeak harrera polita egin zigun.

Bukatutakoan, Kerizpe elkartean

zoragarri afaldu genuen.

Arratsalde-iluntze-gau ederra pasa genuen, geure saltsan! Gainera, beste herri batzuetako txistulariekin jotzeak eta gure zaletasuna konpartitu eta jendearengana alaitasuna eramateak sortzen duen plazera bizi izan genuen beste behin ere.

Eskerririk asko Eibarko Usartza Txistulari Taldeari, gonbidapenagatik eta dena hain ondo antolatzeagatik!

Debako Kalez Kale Txistulari Taldea

800 bat lagun bildu ziren elizako elkartasun kontzertuan

Elkartasun kontzertua izan zen pasa den uztailaren 6an Debako Santa Maria elizan, Sierra Leonan ebolaren birusak kutsatutako umezurtzen alde. Bertan, Durangoko Orfeoia eta Debako Aitzuri Abesbatzak parte hartu zuten, Orkestra Kamara eta hainbat bakarlariren laguntzarekin. Fernando Urain zuzendariaren agindupean aritu ziren musikariak.

Bigarren kontzertua izan da Debakoa -urrez, ekainaren 29an, Durangoko Basilikan egin zen lehenbizikoa-, eta harrera beroa egin zaie bi emanaldiei. Deban ia 800 lagun inguruk izan zuten Mozart-en *Requiem* 626 obra ederraz gozatzeko aukera. Umezurtzen elikadura hobetzeko proiektu batera bideratuko da emanaldietan bildutako dirua.



Nazioarteko Flysch Organo Zikloa, azken txanpan

Mutrikun hasi zen, ekainaren 30ean, eta Deban amaituko da, datoren uztailaren 28an. Oraindik ere badago, hortaz, Nazioarteko Flysch Organo Zikloaz gozatzeko aukera. Dagoeneko emanaldi gehienak egin badira ere (Mutrikun, Deban, Getarian, Zumaian...), azken kontzertua hilaren

28an (igandea) izango da; Oscar Candendo organista arituko da Santa Maria elizan, 20:00etan. Deban aurtan egingo den bigarren emanaldia da, hilaren 7an Angel Monteroren kontzertua izan baitzen.

Nazioarteko Flysch Organo Zikloaren laugarren edizioa da aurtan-

goa. Egitaraua joan den ekainaren 28an aurkeztu zuten, Donostian. Mikel Diez Sarasola Kulturako zuzendariak eta Santiago Banda organo-jotzaile eta jaialdiko antolatzaileak parte hartu zuten agerraldian. Bertan izan ziren, era berean, kontzertuak hartu dituzten herrietako ordezkariek.



125 bat igerilari bildu ditu aurtengo Itxasmilak

Uztailaren 7an (igandea) jokatu zen Debako Itxasmilaren XII. edizioa, Deba Xtrem kirol taldearen ekimenez. Eguraldi lainotsua tarteko, eta itsasoa bare-bare zela, guztira 127 igerilari-rik lortu zuten 1.852 metroko ibilbidea osatzea –iaz baino 40 gehiagok, hain justu–. Hiru ordu laurden inguru iraun zuen probak.

Haigor Aranguren donostiarra nagusitu zen sailkapen orokorrean, ibilbidea 20 minutu eta 18 segundoan osatuta. 24 segundoko aldearekin, Luis Goñi hernaniarra sailkatu zen bigarren postuan, eta Barakaldoko Andrea de la Hera hirugarrean, zeharkaldia 21 minutu eta 42 segundoan egin ostean.

Deba eta Itziarko hamar igerilari lehiatu ziren proban. Sebas Rocandio izen zen trebeena gizonetzkoetan (26 minutu eta 59 segundoko denborarekin), eta Maitane Pastor emakumezkoetan, ibilbidea 30 minutu eta 9 segundoan osatuta.



Irudiak: Ander Salegi

“Lanerako gogoa, ilusioa eta taldea zabaltzeko grinarekin bukatu dugu ikasturtea”

Aurten sortu berri dugun proiektu honek ilusioz eta gogoz betetzen gaitu. Otsailean aurkeztu genuen Iruleak Emakume Pilotariak taldea eta, esan bezala, aurrera egiten jarraitu dugu, baina badugu hazteko eta gauza berriak egiteko gogoa ere. Hilabetero txapelketa azkarrak antolatu ditugu, pala ikastaroak eman dira ordutegi, maila eta modalitate ezberdinetan, bazkide kanpaina abiatu dugu eta inguruan antolatu diren ekimen desberdinetan ere parte hartu dugu: Lilatoia, Mutrikuko eta Elgoibarko emakumezkoen pala txapelketak, txirrindulari proba ezberdinetan laguntzaile gisa, Korrika,...

Ekainean, besteak beste, hiru ekimen nagusitan parte hartu

dugu. Ekainaren 22an, adibidez, Eibarren egin zen minbiziaren kontrako martxan parte hartu genuen beste herritar batzuekin. Ekainaren 29an, ikasturteko azken pala azkarra egin zen, eta ondoren bazkaria. Eta hurrengo egunean, hilaren 30ean, gure elkarte berria ezagutzeko gonbitea luzatu genien herritarrei ate irekien eguna antolatuz Aldats pilotalekuan.

Lanerako gogoa, ilusioa eta taldea zabaltzeko grinarekin bukatu dugu aurtengo ikasturtea. Orain uda izanik, palaz gozatzten jarraituko dugu, eta irailerako prestatzen joango gara, gure 8. txapelketarako.

Iruleak Emakume Pilotariak



San Juan suaren bueltan



San Juanek irudi politak utzi dizkigute aurten ere. Bezperako suaren bueltan jende ugari bildu zen Foruen plazan eta dantzak, jauziak, erromeria... izan ziren protagonista beste behin ere. Biharamunean, berriz, Santa Katalinan izan zen hitzordu nagusia. Urteroko meza ermitaren kanpoan egin ostean, mokadu bat egiteko aukera ere izan zuten bertaratutakoek.



Zahagiak eta dantzak San Pedro bezperako hitzorduan



Azpiko argazkiak San Pedro bezperan ateratakoak dira. Ohiturei eutsiz, zahagiak erre zituzten ekainaren 28ko gauean eta, segidan, dantza saioa izan zen. Herritar ugari bildu ziren plaza zaharrean.

Mendata institutuak eta Zuhatza Euskara Elkarateak elkarlanean antolatutako ipuin lehiaketan saritutako lanak **Berriketan**-en kaleratzen ari gara, betiko legez. Ale honetan, DBHko lehen zikloan bigarren saria lortu duen ipuina duzue irakurgai. Ainhoa Loidi ikaslearen hitzak dira.



AINHOA LOIDI
(1. zikloko bigarren saria)



Euskara, bihotzetik ezpainera

Deban, 2018ko abenduaren 3an
Iritsi da eguna, kalera ateratzeko,
euskararen alde borrokatzeko.

Itziar prest zegoen irteteko, baina...

-Pipipi...! -mugikorra zen, Naiak
mezua idatzi zion.

-Kalera irtengo zara? -galdetzen
zuen.

-Nola ez! -idatzi eta igogailuari dei-
tzen zion bitartean, bidali egin zion.

Kalean...

-Kaixo, armiarma sareak ere atera
zaizkit horrenbeste itxaron ondoren!!

-Lasai neska, hamar minutu falta
dira oraindik!

-Kaixo, neskak! -Onintza zen-.
Korrika batean etorri naiz!

-Armiarma sareak atera zaizkigu
horrenbeste itxarroteaz! -irten zitzaien
Itziar eta Naiari batera eta, noski,
Onintza barrez lehertzen hasi zen, guz-
tiarekin egiten baitzuen barre, baita hai-
zearekin ere!

Plazara iritsi zirenean, konturatu
ziren azkar mugitu beharra zutela; bes-
tela, tokirik gabe geratuko ziren, guztia
jendez betetzen ari baitzen!

Eta pixka bat itxaron ostean...

-Arratsalde on eta eskerrik asko gure
showra etortzeagatik. Eroso ipini eta
badakizue: EUSKARA, BIHOTZETIK EZPAI-
NETARA!

Bat-batean pailazo barregarriak,
malabarista bizkorak, trapezistak, soka
gaineko ekilibristak, txisteratik untxiak
ateratzen zituen magoa... denetarik
zegoen bertan! Baita animaliak ere: erri-
nozeroak, oihaneko suge arriskutsuak,

tximu jostariak, jirafa lepoluzeak, leopar-
do eta lehoi basatiak, krokodilo hagin
zuriak eta Patxi izeneko asto belarri
luzea ere!

Izuak hartu zion arima, inoiz baino
beldurtuago zegoen.

Ezinezkoa zen horrenbeste animalia
hain koordinaturik egotea, zirrargarria
benetan!

Guztiak egin zuten beraien espekta-
kularia, pailazoen izenak eziz.

-Kaixo, jaun-andreak! -esan zuen
haietako batek tonu barregarrian-. Gure
showarekin jarraitzeko hiru laguntzaile
behar ditugu.

Guztiok altxatu ginen, baina aukera
zitzakeen pertsona guztien artean, gure
hiru neskatoak hautatu zituen!

Lotsa-lotsa eginda jaitsi ziren hiru-
rak (baita izututa ere).

-Nola duzue izena? -galdetu zigun
belarritik belarrirainoko irribarre bate-
kin pailazo berak.

-Ni Naia nauzu eta hauek Onintza eta
Itziar dira -aurreratu zitzaion Naia.

-Zelako izen politak! Ni Txobi naiz eta
hau nire adiskide leiala, Fermin.

-Kaixo! -agurtu zituen Ferminak are
ahots barregarriago batekin eta, jakina,
Onintzari barre txikia atera zitzaion.

-Beno, pailazo bihurtzeko prest? -esan
zuen Txobik hiru sudur gorri emanez.

Jantzi egin genituen; marrubi usaina
zuten, marrubi gorri eta goxoena, azu-
krez heteroak.

Errinozeroak beraien inguruan
korrika hasi ziren, sugeak beraien hanke-
tan kiribiltzen, tximuek beraien sorbal-
detara egiten zuten salto, jirafek euren
lepoen bidez beraien buruak haien

aurrean ipintzen zituzten, leopardo eta
lehoiak orroka zebiltzan, krokodiloek
beraien buztanak astintzen zituzten eta
Patxi astoa trostan zebilen han-hemen-
ka.

Bat-batean dena gelditu zen, ikusleek
mamu bat ikusi zutela zirudien. Argi
hori, zuri, urdin eta berdeak ikusten hasi
zen Itziar eta ikusi zuen hurrengo gauza
bere ama izan zen, oihuka batean.

-Non dago nire alaba!!!!???

Bere bi lagunei begiratu eta sentsazio
bera bizitzen ari zirela konturatu zen.

Agian "telepatia" izango zen; Naiak
asko erabiltzen zuen hitz hori, baina
elkarri begiratu eta konturatu ziren iku-
sezin bilakatu zirela.

Ez dakit zergatik, baina beste pertso-
na bat izango balitz bezala hasi zen hiz-
ketan.

-Elkarrekin egon behar dugu!

-Bai, baina zer arraio lagunduko digu
horrek? -egin zuen garrasi Naiak.

-Itziarrek arrazoi du -bota zuen
Onintzak. Eta halaxe egin genuen,
eskuak elkarri eman, begiak itxi eta
garrasika agertu ginen plazaren erdian.
Ikusleak txaloka zeuden eta batzuk baita
negarrez ere. Elkar besarkatu genuen eta
une horretan bukatu zen showa,
beraientzat bai behintzat.

Gau hartan bertan hartu zuten era-
bakia: ez zioten inori esango benetan
desagertu egin zirela; besteek trikimailu
bat besterik ez zela pentsatzen baitzu-
ten.

Beraiek bakarrik zekiten beraiek zire-
la... Euskararen zaindari txikiak!

Itziar leher eginda zegoen, ohean
sartu eta loak hartu zuen.

Kolorez Blai euskal udalekuak azken txanpan

Uztailean zehar, kantuan eta dantzan ikusi ditugu Kolorez Blai euskal udalekuetako haurrak. Hilabetea amaitu bitartean, bi txandatan banatuta, aurtengo edizioan izena eman duten 211 haur ari dira parte hartzen udalekuetan eta 14 begiralek osatutako taldea (argazkian ageri dena) ari da eurekin lanean. Piraten mundua gai nagusizat hartuta, ekin-tza ezberdinak egiten ari dira egunez egun. Zuhatza Kolore Anitz taldeak kudeatzen du ekimena.

Aldizkari hau inprentara bidean zegoenean, bigarren txandan murgilduta zebiltzan eta, hortaz, abuztuko alean izango duzue berri gehiago. Urtero legez, argazki bilduma osatzen saiatuko da *Berriketan*. Bestalde, Kolore Anitz taldea zuekin argazkiak partekatzen ere saiatuko da. Bitartean, kaleetan gora eta behera ikusiko dituzue, jolasean, dantzan eta kantu-kantari!



Ikasturtea agurtu dute mintzalagunek

Aurten, ikasturte amaiera ospatzeko, pintxo-potea eta afaria egin zituzten mintzalagunek pasa den ekainaren 20an. Urtero bezala, egitasmoan parte hartu duten zenbait lagun elkartu ziren, giro ezin hobean.

Urrian hasi eta ekainera bitartean, astero-astero hitzorduek egin dituzte Zuhatzako mintzalagunek; hiru talde izan dira martxan, bakoitza bere ordutegian.

Ikasturte bukaerarekin batera atsedeen hartzeko ordua iritsi zaie orain eta datorren urrian berriz elkar-



tzeko asmoarekin agurtu dute elkar.

Mintzalagun egitasmoa posible egiten duten parte-hartzaile guztiei eskerrak eman nahi dizkie Zuhatza



Euskara Elkarteak. Eskerrik asko denoi eta datorren ikasturtera arte!

Zuhatza Euskara Elkarteak

DEBABE Udal Euskaltegiko hainbat kideren irteera

Ikasturteari bukaera emateko, ikasle talde bat Mendaroko Txokolate Fabrika ikustera joan zen pasa den ekainaren 18an; "bertako txokolatea nola egiten duten azaldu ziguten; interesgarria benetan. Dastaketan ere parte hartu genuen, nola ez! eta benetan gozoa zegoen".

Euskaltegiko kideek jakinarazi dutenez, 2018-2019 ikasturtean 42 ikasleaz osaturiko lau talde eta autoikaskuntzako bi talde izan dituzte goizean nahiz arratsaldean maila desberdinetan. "Ea datorren ikasturtean ere berdinean jarraitzen dugun -erantsi dute-. Anima zaitzete!!!".



UZTAILAK 24, ASTEAZKENA

-22:00. **Dantza: "Negua"** (Bilaka kolektiboa), plaza zaharrea (*Iturri ondoan*).

UZTAILAK 26, OSTIRALA

-12:30. **Bisita gidatua: Debatik Zumaiara itsasontziz.** Informazioa: www.geoparkea.eus.

-19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslari politikoaren eskubideen aldeko mobilizazioa, plazan.

-22:30. **Folklore jaialdia,** zumardiko karpan (Serbia eta Debako Gure Kai Euskal Dantzari Taldea).

UZTAILAK 27, LARUNBATA

-23:00. **Dantzaldia,** Foruen plazan. Debako Musika Bandaren eskutik.

UZTAILAK 28, IGANDEA

-**Jubilatuen Eguna Itziarren.** Egun osoko egitaraua antolatu dute: meza, Andutz Dantza Taldearen aurrekua, bertsolarien saioa, bazkaria, erromeria...

-20:00. **Organo kontzertua:** Oscar Candendo, Santa Maria elizan (Nazioarteko Flysch Organo zikloa).

ABUZTUAK 1, OSTEGUNA

-10:00. **Bisita gidatua: Marearteko Zabalgunea,** E-rotaberri landetxean. Informazioa: www.geoparkea.eus.

-17:30. **Bisita gidatua: Debatik Zumaiara itsasontziz.** Informazioa: www.geoparkea.eus.

ABUZTUAK 9, OSTIRALA

-17:00. **Odol-ateraketak,** Luzaro ikastetxean (Ifar kalean). Debako Odol Emaile Elkarteak antolatuta.

ABUZTUAK 10, LARUNBATA

-12:30. **Kalejira,** Debrass Band taldearekin.

-15:00. **Bazkari herrikoia** txosna gunean. Ondoren, kuadrillen arteko olinpiadak.

-20:00. **Altxa Porru erromeria** txosna gunean.

-23:00. **Kontzertuak** txosna gunean: Rude Pride, Oldalkor eta Desorden.

Erakusketa, elizako klaustroan

-**"Magalean"**, Iratxe Hdez. Simal (uztailean eta abuztuan). Goizez: asteleheneetik igandera, 10:00-13:00/arratsaldez: asteartetik larunbatera, 17:00-19:00. Igande eta jaiegunetan, 17:00-20:00.

Udako musikaldia

***Abuztuak 1,** osteguna. **Duo Saraste:** Jonathan Mesonero (biolina), Mercedes Madina (piano).

***Abuztuak 8,** osteguna. Santa Maria del Coro kaperako bakarlariak, Lucie Zakova (organo) eta Andoni Sierra (zuzendaria).

20:00etan, Santa Maria elizako klaustroan.

Udako ordutegia udal liburutegian

-Irailaren 9ra bitarte, Ostolaza Liburutegiak udako ordutegia izango du: *Liburutegi orokorra: asteleheneetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara izango da zabalik. Haur/gazte liburutegia, beriz, 10:00etatik 13:00ak arte.

KOPRAIXAK ITZIARREN

Abuztuak 2, ostirala:

18:30. Frontenis txapelketa (finala).

Abuztuak 3, larunbata:

10:30. Umeen pilota partidak. **16:00.** IV. Itziar Trail (**16:15ean** haurren). **19:00.** Txupinazioa. Marixiren jaitziera. Ondoren, danborrada. **20:30.** Salbea. **23:30.** Dantzaldia Laiotz taldearekin.

Abuztuak 4, igandea:

07:00. Zezenak. **11:30.** Meza. **12:00.** Txakolin dastaketa, Osto eta Alek alaituta. Ondoren, Endañeta harri-jasotzaile ohia omenaldia eta Joseba eta Udane Ostolaza aita-alaben erakustaldia. **18:00.** XVI. Dantza Solteko Txapelketa, Jon Ostolaza eta Rakel Pujana trikitilariekin. Ondoren, errekortariak eta zezenak. **23:00.** Anje

Duhalde, elizan.

Abuztuak 5, astelehena:

11:30: Meza. **11:30.** Kalejira Jan Da Eran txarangarekin. **13:00.** Sagardo dastaketa, Maddalen eta Amets Arzallus bertsolariekin. **14:30.** Herri bazkaria frontoian. **18:00.** Jolasak plazan. Ondoren, aurrekua eta zezenak. **23:30.** Erromeria Obaneuke taldearekin. **01:00.** Sagar dantza. **02:00.** Gautxorien despuxia Burugorin.

Abuztuak 6, asteartea:

11:00. Umeen arteko jolasak. **13:00.** Umeen entzierroa, zezenak eta pottokak. **14:00.** Umeen bazkaria Salegin. **17:00.** Xabier Larrea akrobata. Ondoren, euskal dantzak eta aerobic. Jarraian, zezenak eta pottokak, buruhandiak eta zezen-

suzkoa. **19:30.** Kantujira poteoa. **20:30.** Bokadilo-jana. **21:45.** DJ Kaktus. **22:30.** Holi party.

Abuztuak 7, asteazkena.

11:00. Umeen jolasak. **11:30.** Bizikleta karrera. Ondoren, poteoa Jan Da Eran txarangarekin. **13:00.** Zezenak. **14:30.** Kuadrillen arteko bazkaria. **17:30.** Jan Da Eran txarangarekin kalejira plazara. **18:00.** Koadrilen arteko jolasak. Ondoren, aurrekua eta zezenak. **23:00.** Erromeria Tximeleta taldearekin. **00:00.** Playback txapelketa. **01:00.** Erromeria Tximeleta taldearekin (jarraipena). **02:00.** Kontzertua: Bad Sound System. **07:00.** Peto jaitziera eta gaupaseroen argazkia.

ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **uztailak 29, 30, 31. abuztuak 1**

Burgoa Zuazo: **abuztuak 2, 3, 4, 12, 13.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: uztailak 27

BURGOA ZUAZO: abuztuak 3 eta 10

9:30 - 13:00

urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
Nº 379

Higiezinaren Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezinaren Agentzia
Komunitadaren administrazioa
Tasazioak/ Baliozaketak

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urloasi.net

Taxi Alain Deba

LIZ.-ZK.: 3

WiFi

636 135 008
alain@taxideba.eus

www.alain.taxideba.eus



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

MARJE CASTRO IRIBAREN



MASAJISTA

Tel.: 677 557 615

- Masaje terapeutikoak
- Kirol masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Txinako medikuntza tradizionala (TUI NA)

28 URTEKO ESPERIENTZIA

DEBA

Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatz

943 191 383

berriketan@zuhatza.com



Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

50 URTE

BURU - ZURI
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA



ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Telf.: 943 19 20 03

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

k

kutxabank

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com



...laborantziak eta bestelakoak...
Auzoaren erakundeak...

Hazitik
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
telf.: 943 02 99 63
e-mail: hazitik@gmail.com

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)



Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

AISI ALDIAZ
GOZATZEKO
HAMA IKA ARRAZOI
ETA MILA AUKERA...

HERRITIK ETA
HERRIAREN TZAKO
EUSKARATIK ETA
EUSKARAZ!

